



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Biscaytikek BK23rekin sinatu dauen kontratuak "goitik behera" betetan dauela kontratazinoari buruzko legea adierazo dau Rementeriak

Bilbon, 2014ko azaroaren 13an

Unai Rementeria Lehendakartzako diputatua Iraskunde batzordearen aurrean agertu da gaur, Batzar Nagusietan egin eban azkeneko agerralditik sei egun baino igaro ez diranean, EH Bilduk eskatuta, Biscaytikek, 2008an sortu zantetik martxan jarri dituan zerbitzuei buruzko informazinoa emoteko. Balantzearen ostean, joan dan astean gertatu zan moduan, eztabaidea, foru erakunde horrek BK23 enpresari egindako esleipen prozesura bideratu da. Diputatuak adierazo dauenez, prozesu osoak "goitik behera" bete dau legea, "zalantzarik bako" auditoriek egiaztetan daben moduan: Aldundiko teknikariek egindako barne txostenak eta Uría y Menéndez abogadu bulegoak eta Kontu Publikoen Euskadiko Epaitegiak berak egindako kanpoko txosten biek.

Rementeriak, Biscaytikek, teknologia barrien erabileraren bitartez eta herritarrak Administrazinora hurbilduz, Udalen eta mankomunidadeen modernizazinoa bilatzen dauen erakunde gisa, izan dituan lorpenen balantzea egin dau. Une honetan "tokiko 112 administrazino" dagoz Biscaytiken "neurri handiagoan edo txikiagoan", hau da, toki erakundeen "%93k", Udal Administrazinoaren aldetik "oso balorazino positiboa" jasoten dituen homogeneizautako zerbitzu telematikoak eskintzen ditu.

Diputatuak, batzordean bertan Batzarretako taldeen artean banatu dan dokumentuaren laburpena egin dau, eta bertan, banan-banan, Biscaytikek martxan jarri dituan moduluak, aplikazinoak, proiektu pilotuak edo zerbitzu nagusiak azpimarratu ditu. Tresna horreen guztien bitartez, toki erakundeek "on line" zerbitzua eskintzen deusie herritarrei, "apurka-apurka frutuak emoten ari dan etenbako hobekuntza prozesuan".

Rementeriarene agerraldia eskatu dauen EH Bilduk salatu dauenez, zerbitzu batzuk martxan jarteko erritmoak eta epeak ez dira aurreikusitakoak. "Badagoz zelan dagozan ez dakigun zerbitzuak, eta jakiteko esperantzarik be ez", esan dau Aitor Torre batzordekideak. Koalizino abertzaleko kideak adierazo dauenez, badagoz, aurreikuspenen arabera 2011n aktibo egon behar ziran eta oraindino martxan jarri ez diran edo lehiaketa deialdirik be eragin ez daben modulu informatikoak. Hori dala eta, Udal batzuk "software" librerantz migretan ari dira. Beste gauza batzuk be kritikau ditu, larregizko azpi-kontratazinoak, 15 milioi euroren truke Microsoft enpresegaz oinarritzko sistema eragilea sortzeko sinatu dan akordioa eta Biscaytiken aurrekontuak datorren ekitaldian eukiko daben igoera.

Aurreikusita egoan zan bira emonez eta batzordeko presidentearen aldeko eretxiagaz, PP taldeak mahai ganean jarri ditu popularren artean BK23 enpresari emon jakon esleipen prozesuak sortu dituan "zalantzak". Carmen Carrón batzordekideak salatu dauenez, esleipena lege barruan dagoala egiaztetako Aldundiak aurkeztu dituan txostenak "aldekoak" dira, eta pleguak "uzkurtuta" egozan, lehiaketa publikora enpresa gehiago aurkeztu ez zedin. Batzordekide popularrak iragarri dauenez, bere taldeak ekimen bat aurkeztu dau, foru enpresen



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

kontratzailearen soslaitik informazio publikoa eskuratzeko aurretik erregistrau beharra kendu daiten, joan dan azaroaren 6an, diputatu jaunak lehiaketaren espedientean hautemandako sarrerren barri emon ostean. Aldundia, “webgune publikoetan sartzan garanok kontrolatan eta espian” ibiltea salatu dau.

Iñaki Egaña PSE-EE taldeko bozeroaleak adierazo dauenez, gai hau “ez dago legeagaz lotuta bakarrik”. Kontuan euki behar da txostenetan “bertan be”, “goi mailako erespidetik ez badago” adierazoten dala, hau da, bestelakorik esan daikien beste txosten batzuk –epaitegienak– egon daitezkeza esaten dala. “Kontratuak zalantza asko sortzen ditu, eta beste leku batzuetan ikusten dituen ustelkeria kasuak dirala eta nahiko arduratuta dagozan herritarrak urduri jarteko besteko susmoak eragiten ditu herritarren artean”, esan dau.

Jon Larreak (EAJ-PNV), gai honetan Aldundiak izan dauen jokabidea defendidu dau. Bere ustez, txostenak ikusita “argi dago esleipen prozesu horretan emondako pausuak bat datoza zuzenbideagaz, eta administrazinoko kontratazinoa arautzen daben printzipioak eta araudiak errespetau dirala”, hau da, “publizidadea, konkurrentzia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, bardintasuna eta bazterketa eza”.

Guzurtau egin dau Aldundiaren jokatzeko moduak internauta kontrolatan dauenik, popularrek esan daben moduan. “Ez da kontrolatan informazio publikora sartzeko eskubidea”. Espedienterako sarreretan egindako ikuskapena, egon daitezkezan irregulartasunak baztertzeko egiten dan ikerketaren barruan dago. “Baztertu egin behar da segurtasun informatikoko akatsik dagoanik edo esleipenagaz bateragarri ez diran interesak euki daikiezan pertsonak sartzan diranik”, esan dau. Ikerketak “akats horreek baztertu egiten ditu, baina erregistrauta geratzen da, komunikabideetan argitaratu aurretik, interes politikoak dituen pertsonak espedienteetara sartzan badira”. “Hori da zuen taldeko bozeroaleak estaldu gura dauena, bere eskubideei egiten jaken eraso dala esanez”, aurpegiratu deutso PP taldeari.

Batzordekide jeltzaleak bere gaitzespena erakutsi dau, PP eta EH Bildu taldeak, eskatutako azalpenak jaso aurretik, esleipenean “irregulartasunak egozala esaten ari ziralako”. Larrearen eretziz, “larriagoa” da oraindino, auditoriak jaso ostean be gauza bera, edo “aurretik egon dirala edo beharbada egon dirala” esaten jarraitzea.

Talde popularrak bere zalantzak agertu ditu lehiaketara aurkeztutako enpresa kopuru txikia dala eta. Larreak adierazo dauenez, Biscaytekek BK23 enpresari egindako hiru esleipenetatik, lehenengoan “9 eskaintza” aurkeztu ziran, lehiaketea “10 egunez” kontratzailearen soslaian argitaratu ostean; bigarrenean “4 aurkeztu ziran”, Biscaytiken webgunean 14 egunez argitaratuta egon eta gero; eta une honetan zalantzan jarten dan espedientean “2 eskaintza” aurkeztu ziran, “40 egunez” argitaratuta egon ondoren. “Zure susmoak ez dauka inolako oinarririk” eta “are gitxiago informatikaren munduaz berbetan ari garanean, mundu horretan ibiltan diran enpresek, ohiko iragarkiak eta publizidadea behar ez daben bilatzaileak eta tresnak erabiltan dituelako”.

Horrez gain, Larreak uste dau EH Bilduren eta PP-ren asmoa auditorien eta horreek egin dituenen izen ona zikintzea dala. “Ez dago holango txostenetan guzurrik esango dauen profesionalik, bere izen profesionala eta bere lana arriskuan egon daitezkezalako”, geroago “irregulartasunak egon dirala frogetan bada, funtzionarioa desgaitu egin daitezkealako” edo hori egin dauen enpresea “inork” ez leukelako kontratauko. “Holango egoeratan inork ez ditu kartara egindako txostenak prestetan”, esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Rementeria reitera que el contrato de Biscaytik con BK23 se ajusta "totalmente" a la ley de contratación

Bilbao, a 13 de noviembre de 2014

El diputado de Presidencia, Unai Rementeria, ha comparecido en la comisión Institucional, seis días después de su última presencia en Juntas, para informar, a petición de EH Bildu, de los servicios puestos en marcha por Biscaytik desde su creación en el año 2008. Tras el balance, el debate ha girado de nuevo, como ya ocurriera la semana pasada, hacia el proceso de adjudicación llevado a cabo por esta entidad foral a la empresa BK23, del que ha dicho que se ha ajustado "totalmente" a la ley, como lo confirman las "intachables" auditorías realizadas: un informe interno realizado por técnicos forales y dos informes externos del despacho de abogados Uria y Menéndez y del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Rementeria ha hecho un balance de los logros de Biscaytik como entidad que busca la modernización de los ayuntamientos y mancomunidades mediante el uso de las nuevas tecnologías, y el acercamiento de los ciudadanos a la Administración. Actualmente, "112 administraciones locales" están en Biscaytik "en mayor o menor medida", lo que supone que el "93%" de los entes locales ofrecen ya servicios telemáticos homogeneizados con una valoración "muy positiva" por parte de la Administración Municipal.

El diputado ha hecho un resumen de un documento distribuido en la misma comisión a los grupos junteros en el que ha ido destacando, uno a uno, los módulos, aplicaciones, proyectos piloto o servicios principales que Biscaytik ha puesto en marcha para facilitar que las entidades locales sirvan a los ciudadanos de manera "on line", "en un proceso de mejora continua que va dando frutos de manera gradual".

EH Bildu, grupo que había solicitado la comparecencia de Rementeria, ha denunciado que los ritmos y plazos para poner en marcha algunos servicios no son los previstos. Existen servicios "que no sabemos cómo están, ni si se les espera", ha dicho el apoderado Aitor Torre, que ha insistido en que existen módulos informáticos sin poner en marcha o salir a concurso y que tenían que estar activos en el año 2011 según las previsiones iniciales, lo que ha provocado que existan ayuntamientos que estén migrando hacia un "software" libre. Ha criticado también la excesiva subcontratación, el acuerdo con Microsoft de 15 millones de euros para crear un sistema operativo base y el aumento presupuestario de Biscaytik para el próximo año.

En un giro esperado y con el plácet del presidente de la comisión, el PP ha puesto sobre la mesa las "dudas" que ha generado entre los populares el proceso de adjudicación a la empresa BK23. Su apoderada Carmen Carrón ha denunciado que los informes que avalan la legalidad de la adjudicación presentados por la Diputación son "de parte" y que los pliegos estaban "constreñidos" para evitar que se presentasen más empresas al concurso público. La apoderada popular ha anunciado que su grupo ha presentado una iniciativa para que se elimine del perfil del contratante de las empresas forales, la obligación de registrarse primero para acceder a la información pública, después de que el diputado informara el pasado 7 de noviembre de los accesos detectados en el expediente del concurso. Ha lamentado que la Diputación se dedique a "controlar y espionar a los que entramos en las páginas públicas".



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por su parte, el portavoz del PSE-EE, Iñaki Egaña, ha considerado que este tema “no es sólo de legalidad”, porque “incluso” en los propios informes se dice que están sujetos “salvo criterio superior”, apuntando a que podrían existir otros informes –judiciales- que podrían señalar en otra dirección. “El contrato suscita muchas dudas y genera las sospechas suficientes como para intranquilizar a una ciudadanía que ya está bastante preocupada por casos de corrupción en otros lares”, ha dicho.

Jon Larrea (PNV) ha defendido la forma de actuar de la Diputación en este asunto. Cree que con los informes, “queda claro que los pasos dados en el proceso de adjudicación son conformes a derecho y que se ha respetado los principios y normativas que rigen en la contratación administrativa”, es decir, “publicidad, concurrencia, transparencia, confidencialidad, igualdad y no discriminación”.

Ha rechazado que la Diputación esté controlando al internauta, como decían los populares. “No se controla el derecho a acceder a información pública”. La inspección realizada a los accesos del expediente los circunscribe en la investigación para descartar “posibles irregularidades”. “Hay que descartar si hay fallos de seguridad informática o accesos de personas con posibles intereses incompatibles con la adjudicación”, ha dicho. A su juicio, la investigación “descarta esos fallos pero queda registrado que previamente a que salga en los medios, acceden al expediente personas con intereses políticos”. “Esto es lo que pretende tapar su portavoz disfrazándolo de un ataque a sus derechos”, ha recriminado al PP.

El juntero jeltzale ha mostrado su desaprobación a que PP y EH Bildu, antes de que recibieran las explicaciones que solicitaban, “afirmaban ya que había irregularidades” en la adjudicación. Para Larrea, resulta “más grave” aún que después de recibir las auditorías sigan insistiendo: “o que las ha habido o que las ha podido haber”.

El grupo popular ha puesto en entredicho las pocas empresas que se habían presentado al concurso. El apoderado jeltzale Jon Larrea ha asegurado que en las tres adjudicaciones hechas por Biscaytik a BK23, en la primera se presentaron “9 ofertas” tras publicarse el concurso durante “10 días” en el perfil del contratante; en la segunda “4” tras 14 días de exposición pública en la web de Biscaytik; y en el expediente cuestionado se presentaron “2” ofertas tras publicarse durante “40 días”. “No tiene fundamento su sospecha” y “menos cuando estamos hablando del mundo de la informática, donde las empresas cuentan con buscadores y herramientas que hacen innecesario los anuncios y la publicidad convencional”.

Además, Larrea cree que tanto EH Bildu como PP intentan desprestigiar a las auditorías y a quienes las han realizado. “Ningún profesional va a mentir en este tipo de informes, porque se juega su prestigio profesional y su trabajo”, porque “si se demuestra después que había irregularidades supone la inhabilitación del funcionario” o que “nadie” contrate a la empresa. “Nadie hace informes a la carta en estas circunstancias”, ha manifestado.